



BI AITZAKIEK ERAMAN GAITUZTE NEGU GORRIAK
TALDEAREN INGURUKO BERRIKUSTE HAU EGITERA.
BATETIK, BERRIKI ARGITARATU DEN TALDEARI
BURUZKO DVD-A: 1991-2001. BESTETIK, DUELA OSO
GUTXI ZABALDU DEN NEGU GORRIAK-EN GAINEKO
WEBGUNE OSATUENA: WWW.NEGUGORRIAK.NET.
HAIN ZUZEN ERE, WEBGUNEAREN EGILEARI ESKATU
DIOGU ARTIKULU HAU IDAZTEKO.

TESTUA AITOR SUAREZ
+ www.negugorriak.net
+ www.musikametak.com
+ www.esan-ozenki.com



NEGU GORRIAK

JARRERA BATEN HISTORIA



NG DATOR

"100 ginen" izenburua zuen Fermin Muguruzak 1990eko otsailaren 25ean Argia astekarian idatzi zuen iritzi-zutabeak. Hortxe iragarri zuen, denen harridurarako, estudioan sartzeko prest zegoela Negu Gorriak zeritzon proiektu berriaren estreina-diskoa grabatzeko. *Gaberako aterbea* kantutik (Bertolt Brecht-ena da letra) atera zuten izena berau bertsionatu zutenean Xabier Montoiak koordinatu zuen Mikel Laboaren omenezko disko-rako. Orduko prentsa musikal estilizatuak "super-taldetzat" hartuko zuen talde hau: Kortaturen jatorrizko bi kidek, horietako bat Delirium Tremens-en jotzen zebilena, eta M-ak taldeko kide batek osatu zuten taldea.

Egia esateko, hemen denok hasieran geunden, rockak urte batzuk baino ez zituen eta Ferminen bere azken eragin musikalaren artean Red Hot Chili Peppers kaliforniarrak aipatzen zituenean, inork gutxiak asmatu zuen ongi idazten.

Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza eta Kaki Arkarazo elkarrekin zerbait egiteko ideia mamitzen ari ziren jada Kortaturen azken egunetan, 1988 urte inguruan. Aurreikusitako atsedendaldiaren ondotik, abentura berri bati ekiteak ez luke ekarriko bakarrik izen aldaketa bat, baizik eta askoz ere gehiago. Hasteko, Negu Gorriak-en euskara ezarri zuten komunikaziorako hizkuntza bakar bezala. Halaber, beren proiektua bestelako jantzi musikalean -hardcorez eta hip-hop-eraz osatua zena- bilduko zuten. The Clash-en *London Calling*-etik (CBS, 1979) Public Enemy-ren *It takes a nation of millions to hold us back*-erako (Def Jam, 1988) trantsizioa zen. Hiruek ala hiruek aurkitu zuten hip-hop-aren ez tandan, bere estetikan, bere formetan... inspirazio iturri adierazgarri bat eta baita mezua zabaltzeko bitarteko eraginkor eta perfektua ere.

Horrela, hirukoak sekretupean lan egiteari ekin zion Kakiren baserrian. Ferminen, edozein zurrumuru edo notiziari aurrea hartuz, beren asmoak konfirmatu zituen arte. Planteamendu berri hone-

tako beste giltza bat lan egiteko moduari dagokio: Negu Gorriak-ek kontratazio telefonoari uko egin zion. Ez zuten besteen deien menpe egon nahi.

Jarrera hau ez zen erabat ulertu jendearen artean. 1990eko apirilaren 11n autobus bateko radiokaseteak hobekien gordetako sekretua desestali zuen. Negu Gorriak-ek bidai bat antolatu zuen Parisera Public Enemy ikusteko. Bidai horretan Negu Gorriak-en izen bereko estreina-diskoa (Oihuka) izanen zena entzun zuten.

Muguruza anaiak eta Kaki Arkarazo, gorra buruan, Spike Lee eta Public Enemy-ri buruz mintzatzen eta graffities eta hip-hop dantzatzaren ari zen jendeaz inguratuta agertzeak nolabaiteko ez ulertzea eragin zuen publikoaren sektore batean. Kortatu eta Negu Gorriak taldeen artean hautatu behar eta lehenengoan aldeko hautua egin zuten batzuek, eta hasitako bidearekin beren desadostasuna adierazten zieten taldeko kideei beraiei, elkarriketa batean Iñigo Muguruzak gogoratu zuen bezala.

Urte honetan -taldeak errealitatearekin eta bere herriarekin konpromisoa hartuko du espresuki bere ibilbide osoan zehar-, Negu Gorriak-ek bere lehen zuzeneko emanaldia eskainiko du modu sinbolikoan oso leku berezian: Espainiako Herrera de la Manchako espetxearen aurrean.

Abenduaren 29an, Anmistiaren Aldeko Batzordeek urtero antolatzen zuten martxan parte hartu zuen Negu Gorriak-ek. Hamar mila lagun baino gehiagoren aurrean eta polizia inguratutik -gerorako *Herrera de la Mancha* 90-12-29 bidean grabatua geldituko zen- taldeak bere lehen erakustaldi musikala egin zuen, eszenatokiaren gainean eritmo kutxa batez eta taldekide berri batez lagunduta.

Mikel Kazalisek, Estigia eta Anestesiako kideak, bere lehen agerraldi publikoa egin zuen Gaztelako laino artean taldeko baxu jotzaile gisara.

NG BADA

Hainbat faktore izan zirela medio, 1991 taldearen-tzako urte inportantenetako bat izanen zen. Taldea hiru kide izatetik bostera igaroko da eta jada ez da aldatuko. Aurreko urtearen amaieran Mikel Anestesiaren sartzearekin batera, Andoingo Bap!! hardcore taldeko Mikel Abrego taldera batuko zen batera jotzaile lanetan. Bostak apirilean sartu ziren estudioan bigarren disko luzea grabatzeko, *Gure jarrera*. Negu Gorriak-ek gainera, "do it yourself" (zuk zeuk egin) gisako teoriak eta kontsignak bere egin eta praktikan jarri zituen. Beren ziguilarekin, Oihukarekin, izandako tira-bira batzuen ondoren, diskoetxe bat sortzea erabaki zuten: Esan Ozenki Records. Kooperatiba moduan funtzionatuko du zigilu berri honek eta modelo asanbleario nabarmen batekin. Hasieran euskaraz kantatzen zuten taldeak fitxatzen zituen bakarrik.

Gure jarrera Esan Ozenkik argitaratutako lehen erreferentzia izan zen eta taldearen lehen urrats handia. Herrera de la Manchako emanaldi sinbolikoaren ostean, taldea eszenatokitara jauzia emateko prestatzen ari zen. Irailean bos-

kotea bi hilabeteko bira batean murgilduko zen Europako hainbat tokitan barrena. Kubara ere joanen ziren hiru kontzertu ematera.

Kortaturekin Europar barrena emandako kontzertuetan muguruzatarrak giro alternatiboetan osatzen joan ziren kontaktu-sare hori fruituak ematen ari zen. Honek taldea geroz eta ezagunagoa egiten lagundu zuen bira horretan nahiz ondoren etorriko zirenetan. Taldearen diskoen



banaketa sarea Mundu osoan zehar hazten eta indartzen joatea lagundu zuen baita ere. Oihartzun mediatikoak ere gora egin zuen kritika onak jaso baitzituen *Gure jarrera* diskoak eta baita polemika bat baino gehiago sortu zelako ere. Gora Herria Power To The People Tour 91 zeritzon bira Bilboko La Casilla pabilioia gainezka zegoela amaitu zen azaroaren 9an, agerian geldituz Euskal Herrian taldeak zegoeneko zuen indarra. Urte bukaeran *Gora herria* maxia (Esan Ozenki) argitaratu zuten. 1992an taldea ikusteko eskariek —eta bere entzuteak— gora egin zuten eta taldeak errepidea hartzea erabaki zuen berriz. Europa, Mexiko eta Washington bidean jartzen dira, azken hiri honetan Chumbawamba eta Fugazirekin batera jo zutelarik. Negu Gorriak-ek kontzertuotako bat probestu zuen, Iruñekoa hain zuten ere, bere bigarren bideo luzea grabatzeko: *Tour 91+1*, antzerki talde batez lagunduta, zeinak kantu bakoitza girotu egiten zuen. Taula gainean taldea ikusia ez zutenentzat, bideolan honek agerian utzi zuen musikal-ki bederen Herrera de la Manchako fotogramak oso urrun zeudela jada.

BORREROAK BADITU MILAKA AURPEGI

1993 urteak Negu Gorriak-en lanik gorena ezagutu zuen: *Borreroak baditu milaka aurpegi* (Esan Ozenki). Donostiako IZ estudioetan hiru astetan grabatua eta batean nahastua, zalantzarik gabe Negu Gorriak-en lan handiena da eta kritikak gehien goraipatu duena.

Maiatzean baina, Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko teniente koronelak jarri zien salaketak taldearen ibilera aztoratuko

zuen. Orduan, Galindo “borroka anti-terrorista” deitutakoaren arduradunetako bat zen eta baita Intxaurrondoko kuartel ezagun eta beldurgarriaren burua ere. Taldearen kontrako salaketaren arrazoia *Ustelkeria* kantuen edukia zen, *Gure jarrera* aurreko diskoan biltzen zena. Teniente koronelaren aburuz, aipatutako abestiaren letrak eta bere argazki bat diskoaren barruko liburuxkan paratzeak “bere ohore eskubidean sartze ez-legitimoa” suposatzen zuen eta 15 milioi pezetako ordainketa exijitu zien (90.000 euro inguru). Taldeak bere jardueran, Esan Ozenkirena eta askatasunez adierazteko eskubidea mehatxatuta ikusi zituen. Negu Gorriak-ek baina, bere jarduerarekin segitu zuen gelditu gabe. Irailean *Hipocrisy Stop!!* Itxurakeriari Tour 93 birari ekin zion taldeak, kontzertuz betetako bi hilabeteko bira. Europar barrenako euren birarik luzeena izan zen. Zegoeneko, Negu Gorriak nahikoa ezaguna zen Kontinente Zaharrean eta taldea ikusteko eskaria handitu zen. Taldea edukiera gehiagoko aretotan jotzen hasi zen. Bira intentsu honen amaiera Bilbon izan zen beste behin. 9.000 gaztek taldea lagundu zuten gau ahaztezin batean. Negurekin batera Lin Ton Taun gazte batzuk eta Radio Bemba (Mano Negra ezku-

tatzen zen marka) izan ziren. Biraren baitako furgonetako ordu luzeetan pentsatu zuten moduan, urriaren 30eko Bilboko kontzertutik ateratako materialak hurrengo udaberrian taldeak argitaratuko zuen zuzeneko diskoa osatuko zuen: *Hipokrisia-ri stop! Bilbo 93-X-30* (Esan Ozenki, 1994).

AMERIKA LATINA ZUTIK!

1994 urtea bereziki intentsua izan zen taldearen-tzak. Urtarrilaren 1ean garrantzi itzela izanen zuen gertakari batek Mundua astinduko zuen. Negu Gorriaren ere eragin handia izanen zuen. Urtea hasi eta ordu erdi batera, Chiapas izeneko Mexikoko Estatu batean Askatasun Nazionalerako Ejertzito Zapatista ezezagun batek ahotsa eta armak goratu zituen Mexikoko eta Munduko panorama politikoa harrotuz. Gertakari honek eta ondotik etorriko zen zapatismoa zeritzonaren jarduerak bandarengan berebiziko influentzia izan zuten, baina egonen ziren elementu latinoamerikar gehiago eraginik izanen zutenak taldeak munduari so egiteko zuen ikuspuntuan. Urtarrilean, adierazteko eskubidearen aldeko lehen bataila judizialaren emaitza jakin zen baita ere. Donostiako 4. Instrukzio Epaitegiak Galindok taldearen kontra jarritako demanda atzera bota zuen.

Baina guardia zibilak segitza erabaki eta sententzia errekurritu zuen. Bien bitartean, Amerikako eszena politikoak mugitzen segitzen zuten. Erdialdeko Amerikan, El Salvadorren, esperantzarako tarterik bazegoen. Gatazka nazional latz eta gogor



NEGU GORRIAK TOUR

1990eko abenduak 29, Herrera de la Mancha.

Negu Gorriak-en erritmo kutsak Espainiako espetxeko murrak kolpatzen ditu. Lehen kontzertua. Ferminak oihu egiten du: “Euskalduna naiz eta harro nago Herrera de la Manchari!”. Printzipioen deklarazioa. NG laukoa da jada.

1992ko maiatzak 30, Iruñea.

Su-irensle, eskalatzaileak, buruhandiak, hankaluzeak... Europako zuzeneko banda indartsuenetako baten luxuzko eszenaratzea. Iruñeko gaua poliziaekin izandako istilu larriekin amaitzen da.

1992ko uztailak 25, Ripoll.

‘Marxa de la independència’-ren amaiera Paisos Catalans-etan. Kilo-metro gutxi batzuetara Bartzelona Joko Olinpikoen inaugurazio-gaua ospatzen ari da. 4.000 gaztek beren errabia husten dute 91+1 zorigaitzokoaren kontra.

1993ko uztailak 5, Bartzelona.

Kataluniako telebista publikoarentzako kontzertu baten grabazio gorabeheratsua. Bartzelonarako bidean guardia zibilak ekipoa eta soinu teknikaria zenbait orduz atxiki egin zituzten. Galindoren itzala aire-espazioan sumatzen da.

1994ko martxoak 14, Usulután.

El Salvador. FMLN-ren kanpainaren amaiera. 2.000 pertsonek bakearen erritmo esperantzagarriaren pean dantzatzen dute Negu Gorriak-ekin batera. Primero la gente!

1995eko urriak 28, Hitz egin.

Emozioak hartutako Negu Gorriak-ekin batera 12.000 pertsonek adierazpen askatasunaren aldeko konpromisoa berresten dute. Hitz egin! Adierazpen askatasunarengatik!

1996ko apirilak 6, Zaldibia.

Luxuzko kartela. Dut, Zebda, Negu Gorriak eta Body Count. Gauaren bukaeran, Ice-T (ikurriña bat kapa moduan daramana) eta Fermin Muguruzak beste kantu debekatua abesten dute: *Cop killer*. Negu Gorriak-en azken kontzertua XX mendean.


2001eko otsailak 23, Baiona.

Ez dut ezer esan nahi-ren gitarrak entzuten dira. Euskal rockaren historiak betiko gordeko dituen hiru gauen hasiera da. Azken agurra. Garaipena zuena da.

baten ostean, zeinak hamar urte iraun zuen, herrialdea "mendearen hauteskundeak" deitutako elezioak egiteko prestatzen ari zen. FMLN-ren legalizazioak eta bere agerraldiak presidentetza-hauteskunderen panoraman ilusio handia sorrarazi zuen. Negu Gorriak-ek eta bere abentura lagunek, Banda Bassoti italiarrek, arreta handiz segitu zuten prozesu hau eta beren musikarekin gerrilla ohiaren ekitaldi elektoralean parte hartzea erabaki zuten brigada moduan. Azken orduan, Kaki Arkarazok ezbehar bat eduki zuen ospitalera eraman zuena eta proiektu honetan parte hartzea eragotzi ziona. Taldeak, halere, El Salvadorrera bidaiatzea erabaki zuen NG Brigada izenpean. Martxoan taldeak hainbat ekitalditan parte hartu zuen eta hainbat gizarte eragile eta politikorekin iritziak elkar trukatu zituzten. Herrialdeak, amaitutako gatazkaren arrastoak oso bizi zituen oraindik, oso hunkitu zituen brigada musikaleko lau kideak.

INTSUMISIOA

Etixeratzea beste errealtate batzuetara itzultzea da. Intsumisioaren fenomenoak oso gertutik ukitzen du Negu Gorriak. Kausa honen alde taldea bereziki konprometitu zen. Mikel Kazalis eta Mikel Abrego intsumiso egin ziren. Bateria jolea lehena izan zen juzkatuetatik pasatzen. Urte bateko espetxe zigorra eskatu zuten bere kontra. Ekainaren 27an Mikel Anestesiaren txanda heldu zen. Bistara aurkezteari uko egin zion baxu joleak eta gainontzeko taldeki-deekin eraso sorpresa bat prestatu zuen Donostiako Auzitegiaren aurrean. Trafikoa geldiarazi zuen kamioi baten gainean, Negu Gorriak-ek kale erdian jotzeari ekin zion oinezkoen artean harridura sortaraziz eta bertan bildutako konplizitatearekin. Intsumisioaren aldeko festa erabatekoa. Gaurkotasunak baina, begiradak Latino Amerikara bueltatu zituen. Euskal errefuxiatu politiko batzuen estradizioaren kontrako istiluak jazotzen ari ziren Uruguain. Montevideoko protestaldien kontra gobernuak bortizki erantzun zuen eta bi pertsona hil ziren. Hiru egun beranduago, abuztuaren 27an, Negu Gorriak-ek Bilboko Aste Nagusian bere indar



guztia deskargatu zuen 20.000 pertsonen aurrean egindako kontzertu gogoangarrian. Urte horretan, kontinente amerikarrarekin izandako kontaktuen eta elkar trukatzeko ondorioz, Negu Gorriak-en lanek ozeanoa gurutzatu zuten eta kontinenteko leku askotan banatzen hasi ziren. Negu Gorriak Hego Amerikara bueltatuko da beste behin. Hegoamerikan tour 94 izeneko birak Argentinara eraman zituen estreinako aldiz –non ikusmin handia zegoen– Txilera eta Uruguaira. Hemen abutzuko mobilizazioen zauriak irekita zeuden oraindik eta gobernuak, hauteskunde kanpainan murgilduta, kontzertua ematea debekatu zien, eta baita prestatuta zeuden jardunaldi batzuk ere. Ondorioz, taldeak aurreikusitakoa baino leku txikiago batean jo behar izan zuen. Zalantzarik gabe, Latino Amerikarekin izandako kontaktua nabarmenki eragin zien. Urte bizi hau ere taldearen hiru-garren bideolan luzean islatua gelditu zen: *NG Telebista 94* (Esan Ozenki).

IDEIA ZABALDU


1995eko maiatzaren 5ean Negu Gorriak-ek bere laugarren diskoa argitaratu zuen: *Idea zabaldu* (Esan Ozenki). Argitaratu eta hilabete batera –irratia *Hitz egin* abesti indartsuaren urratua zabaldu zuen, diskoaren aurkezpen singlea alegia–, ekainean, inksidoreen itzala taldearen gainean planeatzen hasi zen berriz ere, giroa belztuz. Donostiako auzitegiak *Ustelkeria* kasua okertze bidean jarri zuen, ordurako mailaz igotako Galindo jeneralararen alde agertuz. Tal-

deak –azkeneraino iristeko asmo irmoa zuen–, gizarteari kasuari buruz informatzeko, elkartasuna biltzeko eta erresistentzia kutxa bat eratzeko (prozesu judizialaren gastu altuei aurre egin ahal izateko) hainbat ekimen prestatu zituen.

Ekimen sorta honen ekitaldi inportantena urriaren 28an gertatuko da, Oiartzunen. Karpa erraldi baten babespean ordura arte Euskal Herrian egindako jaialdi handienetako bat burutu zen: *Hitz Egin*, alegia. Jaialdi honek orduan Esan Ozean zebiltzan talde guztien parte hartzea izan zuen. Esan Ozenki errealtate sendoa zen, benetako erreferente alternatiboa Euskal Herrian eta Europan. Bada, hamabost banda izan ziren, bi eszenatokitik banatuta, tartean Kaki Arkarazo eta Anton Reixaren artean sortutako Nación Reixa proiektu berria. Musika, poesia, bertsoak eta aldarrikapena bederatzi ordutan. Aurretik baina, irailean, taldeak Europako bira berri bati ekin zion. Espedizioan tripulante berezia izan zuten gainera: Garbiñe Ubeda, taldearekin bidaiatu zena urte hartako biraren kronika bat idazteko: *Negu Gorriak. Idea zabaldu tour 95* liburua (Susa).

MEXIKO


1996an, luzatzen ari den prozesu judizialaren kostuei aurre egiteko Negu Gorriak-ek *Ustelkeria* (Esan Ozenki) argitaratu du, pieza bitxiez eta B aurpegiez osatutako edizio mugatutako diskoa. Martxoan errepidera bueltatuko ziren hainbat kontzertu eskainiz: Baiona, Granada eta Zaldibia (Gazte Topagunearen baitan Dut, Zebda eta Body Count-ekin batera). Apirilean taldea Mexikora bueltatuko zen. Behin hara iritsita, Ferminek eta Mikel Bap!!-ek errealtate zapatistarekin harremanetan sartzeko aukera izan zuten. La Realidad izeneko herrian Marcos komandante-ordearekin solasalditxoak izan zuten. Ordurako, taldea, zelatatua izaten ari zena, ukitua zegoen. Arazo burokratiko baten aitzakiaz Mikel Abrego, zeina bira amaitu ondoren Mexikon gelditu zen, kartzelan sartu zuten. Mexikoko Gobernuak ez zituen kaputxadunekin sinpatiak nahi. Egun batzuen buruan eta isun bat ordaindu otean, Mikel Estatu Batuetara egotzi zuten.



Uda partean, Iñigo Muguruzak bere proiektu partikularra aurkeztu zuen: Joxe Ripiau, erritmo beroak eta dantzagarriak barreiatzen zituen taldea, euskal eszenan bitxia zen formazioarekin ekin ziona: akordeoia, baxua, güiroa eta bonboa. Irailean taldea bere hurrengo lana izanen zena prestatzen hasi zen, baina lan hau argia ikusi baino lehen, Fermin Muguruzak bidearen amaieraren berri eman zuen *Egin*-eko orrialdeetan. Iragarpen honek jaso zuen oihartzun mediatikoa itzela izan zen. Taldearen azken ekitaldi publikoa *Salam agur* (Esan Ozenki) diskoaren aurkezpena izan zen, taldearen soinu banda espirituala osatzeko zuten kantu batzuen bertsioren bilduma-lana. Euskal rockaren historiako talde indartsu eta itzal handienetako baten agurra zen. Adioaren prentsaurrekoan, galdera errepikatuenari promesa bat erantsi zioten: Galindoren kontrako bataila judiziala irabaziko balute ospakizunik egonen zen.

GEUREA DA GARAIPEÑA!

Ez dugu "Negu Gorriak" hitza gaurkotasun-orrialdeetan berriz aurkituko XXI. mendea hasi arte. Denbora guzti honetan, taldekide bakoitza bere proiektuetan murgilduta ibili da, soinu-arrasto aberatsa utziz: Joxe Ripiau, 2 Kate, Nación Reixa, Fermin Muguruzak hasitako bakarkako ibilbidea... 2001eko ekainaren zazpian Galindok taldearen kontra zuen kereila atzera bota zuen Espainiako Auzitegi Gorenak bere formulazioan akatsak zituelako. Miguel Castells abokatuaren ustetan, nekez errekurrituko zuen berriz sententzia. Bestalde, Galindo kartzelan dago urte hartako apirilaz geroztik eta 75 urteko espetxe zigorra ezartzen diote Lasa eta Zabalaeren bahiketa, tortura basati, hilketak eta ondorengo desagerketarengatik.



Azkenean, kargugabetutako jenerala 2004an atez zen espetxetik gaixotasuna alegatuta. Aurreikusi zen bezala, Galindok galdutzat eman zuen prozesua. Publikoa egindako sententziari balizko alegazioak aurkezteko epea amaituta, Negu Gorriak urtarilaren 10ean agertu ziren berriz garaile justuak bezala. Taldearen behin betiko agurra bat egin zuen Esan Ozenki diskoetxearen desegitearekin, zeina Metak zigilua bilakatuko zen, hau ere berriki desagertua. Negu Gorriak bi hitzordu handi prestatzen hasi zen behar bezala ospatzeko: Baiona eta Donostiakoak.

Halere, jendearen harrerak eta gogoak beste kontzertu bat antolatzerara behartu zituen. Donostiako belodromoan izanen zen hirugarren gaua. Otsailaren 23, 24 eta 25eko ospakizunen erdian Fermin Muguruzak mikroa hartu zuen: "Gabon Donostia! Gabon Euskal Herria! Ez gaituzte bakean utzi, baina halere garaipena lortu dugu. Horrek edozein gauzarako kapaz garelako erakusten du". Jarrera baten amaiera zen, diskurtso musikal batena eta talde errepikaezin batena. Negu Gorriak, geurea da garaipena!

DISKOAK ETA BESTE



NEGU GORRIAK

Azken garaietan taldeko hiru kideek entzun eta barneratutakoaren gainean erreferentziez betetako diskurtso musikal eta semantikoa duen diskoa da. Aurkezpen txartel perfektua eta aipagarria, denborarekin askoz ere haratago iritsiko ziren lerro musikalen eta diskurtsiboen lehen zirriborroa.



GURE JARRERA

Aurrera egindako lehen urrats handia. Sarrera eta epilogo duen liburu bat bezala. Errabiaren kronika, ironia eta erlaxaziorako tarte gutxi duena. Tentsoa. Denuntziarako tribuna. Etenik gabeko rock, rap, reggae konbinatua.



BORREKOA BADITU MILAKA AURPEGI

Biniloan bikoitza, disko beltza tratatu intentsu eta emozionala da. Hemen eguneroko bizitzari eta Euskal Herriaren errealitateari buruzko hainbat gai tratatzen dira, arnasteko tarte handirik utzi gabe. Etengabe haziz doan talde baten maisulana.




HIPOKRISIARI STOP!! BILBO 93-X-30

9.000 gaztek zuzeneko basatia eta beldurgarria daukan taldea bultzatzen dute. Fermin Muguruzak interpretatzen eta sentitzen du hitz bakoitza gitarra gogorren gortina baten pean. Bisek emozioa eta festa askatzen dute.



IDEIA ZABALDU

Beltzetik zurira eta kolore indigena. Latino Amerikako errealitate desberdinetan egindako barneratzeek asko eragiten dute bandarengan. Soinu diskurtsoa argiagoa eta aberatsagoa da orain, baina garaiko gogortasunak ez dio esperantzari leku askorik uzten.



USTELKERIA

Negu Gorriak-ek disko gogorrean gordeta zeukan materiala (bitxikeriak, B aurpegiak, argitaratu gabeko piezak eta birnahasketak) disko batera bildu zituen prozesu judizialak eragindako gastuei aurre egiteko.



SALAM, AGUR

Gehien maitatutako influentzien hautaketa eta errekonozimendu bat. Agurraren diskoa, koloretsuena ere badena. Euren bizitzaren soinu banda euskararen iragazkitik pasatuta.



1991-2001

Behin betiko dokumentua. DVDak historiako irudi guztiak itzultzen dizkigu eta agurraren azken emanaldia bitan dokumentatzen du. Barneko liburuxka zaleen gozagarria izanen da. Nahitaezko talde baten kronika osoa eta intentsua.